

Toti Martínez de Lezea

# EGURRA S.A.



n a r r a t i b a •

ere in

EGURRA S.A.

Narratiba, 126

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, [www.conlicencia.com](http://www.conlicencia.com); 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

*1. argitalpena: 2020ko urria*

Jatorrizko izenburua:

*La editorial*

Azalaren diseinua:

Aritz Albaizar

Maketazioa:

Erein

Itzulpena:

Miren Arratibel

© Toti Martínez de Lezea

© EREIN. Donostia 2020

ISBN: 978-84-9109-637-5

L. G.: D 1085-2020

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: [erein@erein.eus](mailto:erein@erein.eus)

[www.erein.eus](http://www.erein.eus)   

Inprimatzailea: Gertu inprimategia

Zubillaga industrialdea, 9

20560 Onati, Gipuzkoa

T 943 783 309 F 943 783 133

e-mail: [gertu@gertu.net](mailto:gertu@gertu.net)

[www.gertu.net](http://www.gertu.net)


Toti Martínez de Lezea

EGURRA S.A.


Itzulpena:  
Miren Arratibel




# \* EGURRA




**GERVASIO EGURRA**



**MERCEDES** Juan Mari Gomez



# FAMILIA \*



## BESTE PERTSONAIA BATZUK

**EMILIO GOIAN**, EGURRA TALDEA S.A.-ren kudeatzailea

**JORGE IBAÑEZ**, Egurra familiaren txoferra

**NEKANE SAINZ**, Ediciones Egurrako irakurle eta zuzentzailea

**MANU LARDAZABAL**, Gervas Egurraren adiskide eta EGURRA S.A.-ko akzioduna

**CARLOS ALBI**, espekulatzaile eta EGURRA S.A.-ko akzioduna

**ABEL EGURRA**, Gervasio eta Nievesen seme ez aitortua

## FAMILIA

**G**arbiketa egiten zuen emakumeak bulegoan topatu zuen, gaueko hamaika eta erdiak aldera, burua mahai gainean zuela, eta oihuka laguntza eskatu zien eraikineko beste areto batzuetan zebiltzan lankideei. Bost solairuko eraikin bat zen, Bilboko Gran Vian kokatua. Eraikineko zaintzaileak 112ra deitu zuen, eta handik Ertzaintzari abisatu zioten. Ertzaintzakoek deia egin zuenari ohartarazi zioten eraikinetik inork ezin zuela atera eta ezertxo ere ukitu gabe egon behar zutela. Handik minutu batzuetara, ambulanzia bat eta patruila auto bat iritsi ziren, biak ia aldi berean. Shock egoeran topatu zuten alarma deia egin zuen emakumea, intzirika eta arnasestu batean; edonola ere, inspektoreek lortu zuten hasteko behar zuten informazio apurra hari ateratzea. Egurra jauna berandura arte gelditzen zen batzuetan, eta ez zuen harritu haren bulegoan argia ikusteak. Ateko zirriritutik kuku egin zuen, jaunari gabon esateko eta, bide batez, luzaroan lanean jarraitzeko asmoa ote zuen galdetzeko.

Izan ere, ezingo zuen bulegoa garbitzera sartu hark alde egin arte, eta ez zen geldituko bi edo hiru orduz han zain, beste batzuetan bezala.

—Zortzietatik hamabietara lan egiten dut —argitu zuen—, eta lau ordu horiek kobratzen ditut, xentimo bat gehiago ere ez, ezta luzarago gelditu behar izanda ere.

Kontua da Gervas jaunak ez ziola erantzun, eta horrek bai, asko harritu zuen, gizon ongi hezia baitzen. Arreta eman zion jauna burua mahai gainean zuela etzanda egoteak ere, baina lo geldituko zela pentsatu zuen. Harengana hurbildu zenean ikusi zuen begiak zabalik zituela; ez zuen begi kliskarik egiten, ez zen mugitu berak sorbalda ukitu zionean. Orduan, korridorera irten, eta lankideei deiadarka hasi zen. Garbiketa enpresako gainerako enplegatuek —dozena erdi, guztira— emakumeak esandakoa berretsi besterik ez zuten egin, ezin gehiago esan: ez zuten ikusi ezer bere tokitik kanpo, ez zen beste inor gelditzen ez bulegoetan ez biltegian, ez zen entzun telefono edo alarma hotsik.

Auzitegi Medikuntzako Institutura eraman zuten hilotza. Zaintzailea arduratu zen zuzendariaren emazteari deitzeaz, eta laster agertu zen Institutuan Maria Paz andrea, bere seme Jon, erraina eta bi bilobez lagunduta, gorpua ezagutu eta zer gertatu zen jakitera. Jakinarazi zieten ezingo zutela han ezertxo ere egin, eta hobe zutela etxera itzuli eta biharamun goizean Ertzaintza beraiekin harremanetan jarri arte itxaron. Eta ordua arteko beren bizimodu ordenatua aztoratu zuen zorigaitz izugarri hark zeharo ikaraturik, etxera itzuli ziren, Areetara. Alargundu berriak lotarako botika bat hartu, eta bere gelara alde egin zuen. Besteak egongelan gelditu ziren, tarte batez,



zer egin ez zekitela. Osaba-izebei, lehengusu-lehengusinei deitu beharko zitzairen, baina goizeko ordu biak ziren jada, eta deiak hurrengo egunerako uztea erabaki zuten. Handik gutxira, isiltasuna zen nagusi jauretxean; zilar-kolore ikusten ziren handik Abraren urak, itxura irrealak ematen zien ilargi argiak.

Handik ordu batzuetara, jangelaren erdia betetzen zuen kaobazko mahai luzearen bueltan elkartu zen familia osoa, gosari ingelesa egitera: zukua, tea, kafea, urdaiazpikoa, fruta zatitua, hirugiharra, arrautzak, bizkotxoa, ogi txigortua, hainbat zaporetako marmeladak eta gurina. Nork bere gustura hartzen zituzten jakiak arastatik zuzenean. Margaretetik ekarri zuen ohitura hura, hil berriaren errain ingelesak, eta nork berea zerbitzatzerako ohitu ziren etxeak, neskamea txoko batean egoten bazen ere, adi, norbaitek zerbaite behar izanez gero ere. Zirraturik artean, mutu zeuden denak, baina, denbora gutxian behin, andreak begietara eramaten zuen lihozko ahozapi brodatua, eta berdin egiten zuten haren bi bilobek. Jauretxearen beste erdian bizi ziren osaba-izebei deitu gabe zeuden, harik eta Jon Egurak alaba gazteenari keinu bat egin, eta neska gazteak tximistak hartuta bezala alde egin zuen arte; handik minutu batzuetara itzuli zen osaba-izebekin, eta neskameak kafe bana atera zien, ongi fuertek.

—Zer gertatu da? —galdetu zuen, azkenik, izeba Mercedesek, hurrupa bat eginda.

—Bart gauean topatu dute, bulegoan —erantzun zion ilobak—; garbitzaile batek, nonbait.

—Zer gertatu da, baina? —errepikatu zuen osaba Juan Marik.

—Ez dakigu. Forentsearen azalpenen zain gaude. Aurki da hemen Ertzaintza.

—Ertzaintza?

—Hala izaten da norbait horrela hiltzen denean.

Maria Pazek negar zotin zaratatsu bat egin zuen, eta bilobek terrazara atera zuten. Kristalean zehar ikusi zuten nola laguntzen zioten bilobek amamari ratan grisezko besaulki batean toldopean esertzen eta nola egiten zuten gauza bera bereaie ere, beste bi besaulkitan, bakoitzak amamari esku bat helduta, kontsolatzeko.

—Kontseiluari ere abisu eman beharko zaio.

Jonek haserreko keinu bat ezkutatu zuen, jakin arren izebak arrazoi zuela. Enpresaren zuzendari nagusia zen bere aita, eta ezinbestekoa zen kontseilariari haren heriotzaren berri ematea.

—Enpresak berdin jarraituko du egun batzuegatik zuzendaririk gabe ere —erantzun zuen, ezpainak estututa.

—Hots egin al diozu izeba Juliari? Eta lehengusu-lehengusinei?

—Ez.

—Deituko diet nik.

Izeba egongela txikira zihoala ikusi zuen Jonek; hantxe egoten zen aita goizero, irakurtzen, eta beste egongelara, bisiten gelara, joateko esateko zorian egon zen, gela pribatua zela hura, familiak beste inork ez erabiltzekoa. Baina ez zuen txintik esan.

Polizia gainerako ahaideak baino lehenago iritsi zen; inspektoreak ohiko galderak egin zituen, hildakoa gaixorik zegoen, zerbait bitxia sumatu ote zioten, ondoezen bat izan

zuen. Ezer ez. Ohi bezala, goizeko hamarrak aldera abiatu zen Gervas bulegora, eta emazteari deitu zion, gero, berandu itzuliko zela esanez; premiazko kontu batzuk omen zituen. Ez zen arraroa, maiz ibiltzen zen horrela; langile amorratua zen bere senarra, esan zuen alargunak, eta nahiago zukeen erretiroa garaiz hartu balu, hirurogeita bostekin, gainerako guztiak bezala.

—Esan esaten zuen, bai, erretiroa hartuko zuela —erantsi zuen, begiak malkotan—. Munduaren inguruan itzulia ere agindu zidan, enpresari emandako guztiagatik, eta begira...

Inspektoreak baietz egin zuen buruaz. Honezkero ohituta egon beharko zuen egoera deseroso bezain triste haiekin, ez baitzuen berak ezer asko egiterik senideren bat ezustekoan galtzen zuten ahaideak kontsolatzeko; ezin ohitu, ordea. Seguru asko, bihotzekoak jota hilko zen Gervas Egurra, baina forentseak argitu beharko zuen hori. Bitartean, ez zegoen ezer egiterik; berriro doluminak eman, berarekin harremanetan jarri behar izanez gero deitzeko esan eta bere txartela utzi, eta Auzitegi Medikuntzako Institututik deitzen zutenean lagunduko ziela hitzeman zien; pare bat eguneko kontua izaten omen zen, oro har. Orobat jakinarazi zien defuntuaren bulegoa zigitatuta eta zaintzapean gelditzen zela, autopsiaren emaitzak jaso arte.

—Beti egiten da honelako kasuetan —gehitu zuen, inork zalantzarik izan ez zezan.

Handik gutxira iritsi ziren etxera gainerako ahaideak. Nieves andrea falta zen, baina inor ez zen ausartu haren bila joatera. Aitita hilez geroztik, luxuzko pisu baten bizi zen. Jau-

retxea bi seme-alaba zaharrenei lagata, etxe hartara aldatu zen, eta zerbitzari zahar batekin eta haren iloba batekin bizi zen. Nork esango zion Gervas hila zela, nori, eta ama bat seme-alabak baino luzeago bizitzea naturaz kontrakoa zela esaten zuen hari? Bestalde, ordea, laster zabalduko zen berria, eta askoz ere okerragoa izango zen kanpotik jakitea. Azkenik, alaba gazteenak, Juliak erabaki zuen berak esango ziola. Ez zion inori utzi laguntzen; ama larritu egingo zen goiz erdian familiarteko bat baino gehiago ezustekoan bere etxean agertuz gero. Mantso joan zen hareneraino, nola kontatuko zion pentsatzen. Bazekien zein kutuna zuen bere neba, aitaren berdin-berdina, itxuraz nahiz izaeraz, eta sekulako kolpea hartuko zuen. Handik pixka batera, balkoi-terrazan eserita zegoen, hantxe baitzen ama, tea galletekin hartzen, itsasoari begira, eta egunkariak irakurtzen. Alaba ikusteak sortutako poza samin bihurtu zen berri txarra jakin bezain laster; hitz erdirik esan gabe, begirada ostertzean iltzatu, eta ez zuen malkoak xukatzeke keinurik ere egin, masailetan behera irristatu zitzaizkionean.

—Hobe nuen zure aitarekin batera joan banintz —esan zuen, halako batean—. Ez nuen biziko samin hau, ezta beste batzuk ere.

Eguerdirako jakinaren gainean zegoen jende guztia. Jo eta jo zebiltzan mugikorak; etengabe deika zituzten lagunak, politikariak, bankariak, finantza arloko jendeak eta hedabideetakoak, doluminak emateko eta hiletari buruz galdetzeko batzuk, zer gertatu zen jakiteko beste batzuk. Herrialdeko argitalpen enpresa handienetakoa zen Egurra Taldea S.A., eta haren zuzendari nagusiaren bat-bateko heriotzak zalantza asko sortu zituen aurrerantzean gertatuko zenari buruz.

Gervasio Egurra aitak ondo lotuta utzi zuen dena. Baziren hoge urte lurperatu zutela, baina hura bizi zeneko filosofia berari jarraitzen zion enpresak; haren itzala luzea zen, oraindik, Administrazio Kontseiluan, korridoretan, bulegoetan, biltegietan. Inola ere ez zuen onartuko inork ahanzte dirutza hura berak egin zuela, baserritar batek, baserritarren seme batek, eta berari esker egin zezaketela seme-alabek eta bilobek jende arruntak baino bizimodu askoz ere oparoagoa, are beste familia dirudun batzuen baino oparoagoa. Irmo gidatu zuen negozioa beti, eta laurogei urteak beterik zituela hil zen, milurteko berriaren hasieran. Fundatzailearen seme-alabek, Mercedes, Gervas eta Juliak, herentziaren erdia jaso zuten: Nieves alargunari zegozkion herentziaren beste erdia eta laurden bat, baina andreak erabaki zuen nahikoa eta sobera zuela erdiarekin, eta bere oinordekoen legatuari atxiki zion laurden hura. Hala, bada, bi seme-alaba zaharrenei laga zien jauretzea, erdi bana, eta gazteenari, jaioterriko baserria; berak, berriz, itsasora ematen zuen pisu bat erosi zuen, hantxe, Negurin.

Ez zirudien enpresaren norabidean aldaketa handirik gertatuko zenik, baina estrategia aldatzea eskatzen zuten teknologia berriek, batetik, eta merkatuak, bestetik, urte batzuk lehenago pentsaezinak ziren mugetaraino aseta baitzegoen, eta, hala, familiak erabaki zuen hedabideetan inbertitzea, Interneten mundu zurrunbilotsua barne zela. Horretarako garai berrietara egokitutako adimen gazteak beharko zituztela, eta halaxe sartu ziren Gervasioren bilobak enpresan, hura modernizatzeko asmoz. «Ediciones Egurra» enpresak izena ere aldatu zuen, garaian garaikora moldatzeko, eta «Egurra Taldea,

S.A.» izena jarri zioten; hala ere, funtsean, lehengoan jarraitzen zuen fundatzaileak ezarritako egiturak. Alaba zaharrena, Mercedes, zeinak ikusten baitzuen bere burua leinuaren matriarka gisa, ama bizi zuen arren, Administrazio Kontseiluko presidentea zen; Kontseiluak urtean egiten zituen pare bat bilkuretan buru aritzen zen, beraz. Bigarren semea, Gervasio hura ere, baina Gervas deitua aitarendik bereizteko, entitatearen zuzendari nagusi izendatu zuten, aitaren ordeiz. Hirugarrena, Julia, herrian bizi zen, eta gutxitan ikusten zuten Areeta aldean, are gutxiago Bilboko bulegoetan, nahiz eta tarteka Kontseiluko bileretara joaten zen; isil-isilik egoten zen, hori bai, eta desagertu egiten zen bilkura amaitu orduko.

Mercedesen hiru seme-alabetatik, Juan Ignazio argitalpen eta banaketa arduraduna zen; Begoña, giza baliabideena, eta Pablo hedabideen atalarena, baita enpresaren irudi, publizitate eta proiektzioarena ere. Gidoi batez lotuta erabiltzen zituzten guraoen abizenak, Gomez-Egurra, tankera aristokratikoagoa zuelako; amari bururatu zitzaion, eta ez zuen izan haurrak auzitegian halaxe inskribatzeko inolako eragozpenik. Fundatzailearen laugarren biloba, Jon, Gervas eta Maria Pazzen semea, ekonomialaria zen ikasketaz, eta finantzez arduratzen zen.

Pablo zen, zalantzarik gabe, hirugarren belaunaldikoen artean anbiziotsuena. Ekonomia, Zuzenbide eta Kazetaritza ikasketetan matrikulatua, baina bakar batean ere ez zuen gainditu lehen ikasturtea; lortu zuen negozioan sartzea, amaren presioari esker, baina osabaren iritziaren oso kontra, uste baitzuen txoriburu hutsa zela iloba. Hamabost urteko eskarmentuarekin, jada, publizitate eta prentsa atalaren zuzendaritza baino goragoko kargu baterako prestatuta ikusten

zuen bere burua; azken batean, zeukan ardua ez zen batere zirrargarria, beretzat behintzat. Egurra Taldea Euskadiko enpresa aitzindaria zen bere esparruan, baita estatuko garrantzizkoenetako bat ere; baina Pabloren helburua zen enpresa gorenera eramatea eta nazioartean proiektzioa izatea. Eta hori lortzeko, arriskuak hartu beharrean zeuden, funts ugari behar baitziren jauzi handia egiteko. Bere eginahal guztietan, ordea, osabaren ukoarekin topo egiten zuen, zeinarekin, bestalde, ez baitzen sekula ongi konpondu.

—Segi zureari, eta utzi diru kontuak jende adituagoei —esaten zion Gervasek beti, gaiari heltzen ziotenean.

—Zure seme Joni, adibidez?

—Ba, Jon aipatu duzularik, bai: berari, adibidez. Ez daukagu zorrik, eta, sinetsidazu, ez dago enpresa bati buruz gauza hoberik esaterik. Gainera, zer kexa duzu? Ministro baten baino gehiago irabazten duzu, eta nahi duzun horretan inbertitu dezakezu zure dirua, baina negozioa arriskuan jarri gabe, noski.

—Ez da diru kontua bakarrik.

—Zer da, orduan? Botere kontua?

—Aurrerabide kontua. Aitita hil zenetik ez dugu gure jardueran ia aurrerapenik egin.

—Ez, zera! Bi argitaletxe erosi ditugu, akzioak ditugu prentsan eta telebistan. Ez ezazu esan ez dugula aurrerapenik egin, gizona!

—Estatu Batuetan ireki behar dugu, merkatu anglosaxoian sartzeko, eta Txinan.

Gervasek, orduan, ironiazko irribarre bat egin, eta idazkariari deitzen zion, solaskideari aditzera eman ez eginkizun

garrantzizkoagoak zituela arrakasta izateko aukera handirik gabeko proiektu garestietan denbora galtzea baino.

Zer gertatuko zen, ordea, Gervas hila zelarik? Beste zuzendari nagusi bat izendatu beharko zuten, eta ez zen erraza izango: lau lehengusu-lehengusinek ikusten zuten beren burua postu horretarako hautagai. Azken erabakia kontseiluari zegokion arren, Nieves andreak akzio sorta handia zuen, eta hark ahalduen nor izendatu, harexek erabakiko zuen izendapenaren auzia. Ordura arte, inoiz ez zen beharrezkoa izan haren bitartekaritza; izan ere, aita bizirik zela hartu zuen Gervasek zuzendariordearen postua, eta inork eragozpenik jarri gabe iritsi zen negozioaren zuzendaritzara, gero.

Forentseek irizpena eman zuten bihotzekoak jota hil zela; halaxe, zigilua altxatu, eta zaintzapetik atera zuten bulegoa, baina arduradun berria izendatu arte ez zuen inork han sartzerik. Badaezpada, ateko sarraila aldatu zuten, enpresaren gerentea bertan zela, eta enpresaren lege auziez arduratzen zen abokatu bulegoko kutxa gotorrean gorde zuten giltza.

Gervas Egurra Otaduiren arimaren aldeko hileta elizkizuna San Ignazio Loiolakoaren parrokiaren egin zen; jendez lepo bete zen eliza, eta dozena erdi apaizek eman zuten meza. Biotz Alai abesbatzak Mozarten *Requiemeko Lacrimosa* kantatu zuen, Bilboko Orkestra Sinfonikoko kideek lagunduta, eta, Pergolesiren *Stabat Mater dolorosa* interpretatzeko, berriz, soprano bat eta altu bat kontratatu zituzten, ospe handiko bakarlariak biak; egun hartan bertan iritsi ziren Zürichetik Loiuko aireportura, eta beren interpretazioarekin ibaika isurarazi zituzten malkoak elizan. Hilotza goizean ehortzi zuten Getxoko hilerrian, familiaren panteoian,



non aitaren gorpuzkinak gordetzen baitziren ordura arte; zeremonia intimoa izan zen, ahaide hurbilenak besterik ez ziren elkartu, eta haren lagun mina, Manu Lardazabal, Deustuko ikasle garaietako laguna eta enpresarioa hura ere.

Nieves andrea ez zen izan hilerrian, baina bai hiletan, bere bi alabek lagunduta, une oro; Maria Paz alargunak, berri, erraina eta bilobak izan zituen aldamenean. Familiak bete zituen korridorearen bi alboetako lehen bi eserlekuak, emakumeak ezkerrean eta gizonak eskuinean jarrita, eta zeremonia amaitutakoan, ordubetetik gora egin zuten eliza barruan, elizkizunean izandako gehienek interes bizia baitzuten haiei doluminak ematera joan eta han izan zirela jakitera emateko. Amamak ihes egin zien lehenengo hango musu eta besarkadei, Mercedes eta Julia ondoan zituela, betiere, bakoitza beso batetik helduta, eta Lincoln Continental beltzera igo zen. Zain zuen txoferra, eskua giderrean, atea irekitzeko prest.

—Goazen etxera, Jorge —agindu zion.

—Ez zara gurekin etorriko? Mokadu bat prestatu dugu senide eta gertukoentzat.

—Ez nago ni mokadutarako.

—Maria Pazek eskertuko du zu han izatea...

—Bera ere ez da festa askotarako egongo ba.

—Ama...

—Jorge, goazen etxera.

Bi alabak ama abiatu zain gelditu, eta besteengana joan ziren gero.

—Gero eta jasanezinago dago —bota zuen Mercedesek.

—Zahartuta —baietsi zuen ahizpak.

Handik pixka batera, senideak eta lagun gutxi batzuk lehen solairuko egongela ikusgarrian elkartu ziren; bost izarreko hoteleko ataria ematen zuen egongela hark, etxe partikular bat baino gehiago: zuria eta krema kolorea nonahi, marmol zaindunezkoa lurra, korapilozko alfonbra, sofa biribilduak eta besaulkiak, zein bere mahaitxoarekin, estrategikoki kokaturik, elkarrengandik urrun, giroak bereizteko, eta tximinia handi bat, marmolezkoa hura ere. Hormetako itsas pintura eta paisaiek, txinatar loreontzi erraldoi batek, portzelanazko han-hemenkako iruditxo batzuek eta errezilla loredunek osatzen zuten dekorazioa. Zirela neskame uniformedunek zerbitzatutako ardoa eta pattarrak, zirela mokadu gozo nahiz gaziz beteriko erretiluak, desagertzen baitziren berehala beste batzuei tokia egiteko, zela heriotza inork saihestu ezinezko gertaera delako ziurtasuna, doluak elkarrizketa animatuei bide egin zien, eta ez zen falta izan haietan irribarrerik.

Nieves andreak ezustekoan harrapatu zituen denak, hantxe agertu baitzen, inork espero ez zuenean. Erraina eta biak estilo proventzarreko bi eserlekuko sofa dotore batean eseri ziren, leiho handi baten alboan, zeinetatik ilunabarra ikusten baitzuten itsasoan. Han zeuden hogeita hamar lagunetatik, beraiek ziren jan-edanean ari ez ziren bakarrak, pertsona bat burutik kendu ezinik: Gervas, seme laztana, senar maitea. Elkarri eskua emanda, begiak busti, ez zuten hitz erdirik esateko premiarik; ezin zuten ulertu bat-bateko galera hura. Beti konpondu izan ziren ongi, agian, antzeko jatorria zutelako biek eta ahanzten ez zutelako. Zaharrenak enpresa sortzen lagundu zuen, eta gizonaren pare lan egin zuen: liburu biltegi zaharraz arduratu zen, baita etxeaz eta seme-alabez ere, eta

azken xentimoa ere aurreztu zuen, harik eta Gervasio aitak hainbeste irrika zuena lortu zuen arte: dirutza egitea. Maria Pazek ez zuen egin behar izan halako eginahalik, ez zuen izan amaginarrebak hainbateko oinazerik, baina, funtsean, deseroso zegoen guztiz berea sentitzen ez zuen giro batean; nahiago zukeen idazkaritza ikasketak ordaintzeko tabernari lanetan ari zela ezagututako mutiko hura gizon arrunta izan balitz, ordutegi arruntarekin, bizimodu arruntarekin, eta ez lanak itota bizi zen enpresario bat, ez baitzuen inoiz astirik beretzat eta beren semearentzat.

Gutziz ilunduta zegoen bilera amaitu eta lehenengo gonbidatuak agurtzen hasi zirenerako. Nieves andrea sofatik altxatu, eta txoferrari abisatzeko eskatu zuen. Istanten, inguruan zituen senitarteko guztiak, bera etxera eramateko prest.

—Eraman nazazu zuk.

Andrearen aukerak halako astinaldi bat eragin zuen: Iker birbiloba aukeratu zuen, Juan Ignazio bilobak hogeita hamar urte lehenago neska gazte batekin izandako semea, ez batek ez besteak artean hogeit hamar urte ez zituztela. Mercedes eta haren senarrak uko biribila eman zioten egoki irizten ez zioten harreman hari, eta Madrilera bidali zuten semea, ikastera; neskatxari, berriz, ordain ekonomikoa eskaini zioten, baina ez zuen onartu. Ez zekiten haurdun zegoenik, ezta Juan Ignaziok berak ere; enpresa ikasketak amaitutakoan, bere «mailako» batekin ezkondu zen, kontratisten alaba eta biloba, eta editorialean sartu zen lanera. Egun batean, Zazpi Kaleko liburu denda txiki baten aurretik pasatu, eta barrura sartu zen, begiratutxo bat egitera; ez zioten arreta eman hango liburuek, beste bezero batekin ari zen liburu saltzaileak baizik. Itziar ez

zen batere aldatu hamar urte haietan: betiko ile kizkurra, begi distiratsuak, irribarre bera... Halako batean, dendaostetik mutiko bat atera zen, amari galdezka ea ez zen ixteko ordua, berak amaituta zituela etxeko lanak eta gose zela. Semea legitimotzat hartzeko erabakiak sekulako asaldura sortu zuen familian, baina tinko eutsi zion bereari, eta, harrigarria bazirudien ere, aitaren amamak beste inork ez zion babesik eman. Zailagoa izan zen «sasiko umeari» –halaxe esaten zion Mercedesek, pribatuan– besteei bezalaxe begira ziezaioten, egia bazen ere oso tarteka ikusten zutela, orduko bezalako okasioetan.

—Zer moduz lanean?

Egongelan eserita, te kikara eskuetan, gazte informatikariari so zegoen andrea; ez zuen familiako inoren antzik, baina berak beti esaten zuen bazuela bere senarraren tankera, kikildu gabe aurrez aurre begiratzeko moduan, agian.

—Ondo, amama, ondo –amama esaten baitzion, berez birramama zuen arren–. Gustura nabil. Eta zu? Zer moduz zaude?

—Ba, txarto, semearen galeragatik minduta. Ezin bestela egon, erremediorik ez duen arren.

Ikerrek eskua laztandu zion, eta keinu xume hark eta gazteari begietan sumatu zion txerak ahots gora esanarazi zioten bere baitan gordetzeko asmoa zuen hura.

—Gervas ez da hil bihotzekoak jota.

—Amama!

—Hasi orain betiko erretolikarekin, nobela gehiegi irakurtzen ditudala eta. Baina badakit ez dela hala izan.

—Nola badakizula? Zer dakizu?

—Ekarri bigarren apaleko liburuen gaineko karpeta more hori —esan zuen, egongelako pareta bateko apalategia seinalatuz.

Karpeta ireki, gutun-azal batetik eskuz idatzitako hiru le-  
rroko mezu bat atera, eta eman egin zion.

—Irakurri.

Bien bitartean, Abra ertzeko etxean, Mercedes Pablarekin hiz-  
ketan ari zen «bere estudioa» esaten zion gelan, zeina erabil-  
tzen baitzuen irakurtzeko, administrazio lanetarako eta posta  
governatzeko.

—Ez ahal du sasikoa ahaldun izendatuko! —errepikatu  
zuen hamaikagarrenez.

—Batek daki...

—Haren botoak erabakigarriak dira zuzendari nagusia  
izendatzeko.

—Eta nire anaia aterako da...

—Bihar hitz egingo dut amarekin, ziurtatzeko. Asko maite  
dut Juan Ignazio, baina ez nago ama maitasunak itsututa.  
Kargurako askoz ere egokiagoa zara zu, ziur naiz horretaz.

—Baita ni ere.

—Ziurtatuta dituzu nire botoak eta izeba Juliarenak,  
baina pentsatzen dut Maria Pazek bere semearen alde egingo  
duela, eta hark bere buruari botoa emango diola... Hortaz,  
zure amamaren esku geldituko da dena.

—Ez ahaztu Lardazabal eta Madrilekoak ere.

Istant batez, harrituta gelditu zen Mercedes, bere neba-  
ren lagun mina eta Madrilekoak... Ez zen haiez gogoratu; ez

zuten Kontseiluaren bileretan parte hartzen, eta, askotan, ahaztu egiten zen bata eta besteak ere enpresako akziodunak zirela. Aita hil ondoren, krisiaren eta Ediciones Egurraren bi-deragarritasuna arriskuan jartzerainoko irabazi murrizketaren eraginez, akzio batzuk utzi behar izan zituzten amak eta neba-arrebek, haiek merkatura ateratzeko. Bestalde, Lardazabalek Gervasi zuzenean erosi zizkion akzio batzuk, Gervasek diru premia izan zuen garai batean hari laguntzeko.

—Ondo iruditzen bazaizu, Madrilekoekin hitz egingo dut bihar.

Pablok amari masailean musu eman, eta emaztearengana joan zen, bere zain baitzegoen etxera itzultzeko; Areetako alderdi berrian bizi ziren, duplex batean. Mercedes bere estudioan gelditu zen pixka batean, gerente berriaren hautaketari buruz gogoetan. Gero, dena txukun zegoela eta aldizkarietakoekin pareko bere egongela ikusgarrian edalontzi bakar bat gelditzen ez zela egiaztatu, eta lotara joan zen. Senarra aspaldi oheratuta zegoen, eta zurrunga batean ari zen.

—Beste logela batera aldatu beharko dut —esan zuen, ozen, begiak itxi aurretik.